

Nahiz eta oraindik...

**Miren Azkarate
Badiola**

5o urte igaro dira Kathrine Switzer izeneko emakume batek “historia-ra” pasatzen diren argazki horietako bat utzi zuenetik. Agian izena soilik entzunda askok ez duzue irudia buruan izango, baina, Bostongo maratoi famatuan parte hartu zuen lehen emakumea dela esaten badut, batzuei behar bada zeozer etorriko zaizue gogora. Eta horri gehitzen badiot lasterketa hartan parte hartu zuten gizon batzuengandik zango-trabatua, iraindua, kolpatua... izan zela, are gehiago. Oraindik ez dakienarentzat, Kathrine Switzerrek ordura arte beste emakume batek inoiz egin ez zuena egin zuen 1967an: Bostongo maratoian hartu zuen parte, eta, emakume izate hutsagatik, bai parte hartzaile eta baita ikusleen aldetik ere, era guztietako erasoak jasan behar izan zituen. Lasterketako zuzendariak berak bertatik atera nahi izan zuen bultzaka,

«kanpora nire karreratik!» oihuka ari zen bitartean. Baina Kathrine Switzerrek ez zuen amore eman eta maratoia amaitu zuen mundu guztiari erakutsiz emakume batek ere maratoietan parte hartu ahal zuela: helmugaraino eraman zuen berdintasunaren aldarria. Aurten, urteurrena ospatzeko, zapatilak jantzi eta Bostongo maratoian parte hartu du berriz ere 69 urterekin, oraingoan jazarpenik gabe. Mende erdia igaro da eta zuri-beltzeko argazkiak koloretan ikusten ditugu orain; aldaketa nabariak izan dira, nahiz eta oraindik... Opor hauetan Virginia Wolfen “Gela bat norberarena” liburua irakurri dut. Bertan, literaturan emakumearen ikusgarritasun ezaz hitz egiten du. Bi mende atzera, emakume idazlerik ez egotearen hausnarketa egin eta literaturan eta gizartean emakumea nola erakusten den azaltzen du.

Kasualitatea ala ez, bi mende geroago, Leire Ibargurenak idatzitako “Laura esaten zioten” liburuaren aurkezpenean egon nintzen. Emakume batek idatzitako beste emakume baten biografia da. Eta ez da edozein biografia, Miren Odriozolarena baizik, Euskal Herrian nahiz El Salvadorreko gerran FMLNko gerrillariekin batera borrokan aritu zena. Berrehun urte pasa arren, ideia berdina entzun nuen, hau da, emakume idazle gutxi daudela, eta, nahiz eta bizitza oso interesgarriak egon (gizonen heinekoak), ez ditugula kontatzen eta idatzita uzten. Gizonezkoenak izan diren hiru esparru aipatu ditut: kirola, literatura eta gerra. Beste hamaika esparru aztertuta ere, berdina aurkituko genuke. Bi menderen tartea, baina oraindik ere egoera berdinak. Asko egin da, nahiz eta oraindik... asko da goen egiteko! •

Pizkundea

Antton Izagirre

Udaberriak ondo erakutsi digu landareen izerdia berritu ezetzik, gizakion odola bor-bor jartzeko gaitasuna baduela. Apirilaren 8an Baionan emanikoak, han izan ginenon eta joan ez ziren askorengan sorturiko emozio nahasmenak nekez deskriba daitezkeen zirrarak sortu zizkigun. Ohituak gara emozioak parametro arautuetan sailkatzen. Ustez badakigu zer den poza, tristura, beldurra, pena, baina han elkartu ginenok ez genuen une berean emozio bera edo berdina sentitu, ez emozio bakarra ere, eta ez genuen ere hunkitzeko arrazoi bera izan. Kasurik gehienetan poza zirudiena, batzuentzat behin betiko armagabetzeak eragindakoa izango zena, beste askorentzat iraganeko, bizi izandako nostalgiak gogora ekarria; askorentzat poza eta nahigabea berezi ezina.

Han gainezka egin zuten malkoak adierazmen askotarikoak izango ziren. Ba ziren malko lodiak, gertuko norbaiten galeraren saminaz isuri modukoak edo urrutira etorkizun hobe baten bila doanaren agurrean dolorez xurgaturikoak, minak eragindakoak, maitasunez erakutsiak; malko gozoak, mikatzak, gaziak, zapore ugarikoak. Nork ez du, han amaiera ematen zitzaionarekin, zentzu batean edo bestean, zuzenean edo zeharka, joan diren berrogeita hamar urteotan, nolabaiteko amodio/gorroto, poz/samin, atsegin/haserre... moduko harremanik izan? Nork bere baitan une isilean edo txalo artean sentitu genuenak, atmosfera berezia sortzen zuen sentipena izan genuen. Atzera begira jarrita, aurrera nola egin erakusten zigun bizipena esnatu zigun. Handia izan zenaren bihozkadak ginituen. Noizbait, «neu ere han izan nin-

tzen» iltzaturik usteko balio izango zuela koan itzuli ginen geurera. Eguna amaitzeaz, beroaren galgak, geure zainetako izerdi gorria kolpatzen jarraituko zuen. Julio Sotoren buruz buruko eta amaierako bertsoek aurrez minberak ziren emozioak lehertu zituzten bakardadean. Biharamunean, Korrikaren amaieran Iruñeko aldarrian lerratu ziren bihotz taupadak, hainbat ertz, erpin, punta eta izkina dituen herri hau borobiltzen ari den sentimendua ernatu zuen. Borobila irudikatu genuen geroa, etorkizuna. Aurtengo Gernikako Aberri Egunak bide horretan jarri gaitu. Emozioek, biltzen, borobiltzen eta berez ibiltzen jarriko gaituztela aurreikus dezakegu. Jarrai dezagun, bada, emozioak pizten, sugarak iraun dezan, eta, beste hark zion bezala, «aurrera bolie!». •